



MENDIKUTE, HARRIEZ EGINIKO HISTORIA

Erdi Aroko gaztelu baten aztarnak eta erromatarren garaiko galtzada topa daitezke mendi honetan 4-5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-01-11

VII. URTEA 1.600. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo arratsaldean egin zuten lehen emisioa; www.bonberenea.com-en entzun daiteke. ESTI EZEIZA

GARAPENAREN BIDEAN URRATS BAT GEHIAGO: BONBERENEA IRRATIA

TOLOSA Bonbereneak hamaikagarren urteurreneko ekitaldiei amaiera emateko atzo egin zuten irratiaren lehen emisioa, internetez 7

Gabonetako Gazte Asteak emandakoarekin pozik azaldu da Tolosako Gazte Saila.

Iñaki Gazteluk Binakako Txapelketaren finala galdu du

LEITZA 40-38ko emaitza izan zen amaieran; Ezkurrarekin osatu zuen bikotea leitzarrak 7



Herrian zehar eskuorriak banatu eta pankartak zabaldu zituzten. ESTI EZEIZA

Gazte asanbladek bat egin dute AHTren aurka.

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

Unibertsitatea eta enpresa, inoiz baino lotuagoak. MU, aurretik doan unibertsitatea.

Ez adiorik, Iñaki

» Iritzia

Joan Mari Torrealdai
'Jakin'-eko zuzendaria

Lagun bati buruz hitz egitea, gauza atsegina da. Baina ez hilda dagoenean. Atsegina, benetan atsegina, lagun batekin hitz egitea baita.

Gogorra da bat batean konturatzeko ez ingo duzala gehiago Iñakirekin egon. Ez geunden horretarako preparatuta, aitaren atean joan baita, ustekabea, deus abisatu gabe. Nire sentsazio bera izango dute asko eta askok. Askok baitira Tolosaldean eta handik kanpo Iñaki ezagutu eta maitatu dutenak. Gehien gehienak, denak ez esatearren, bere apaiz lanean ezagutu dute Iñaki, elizan edo katekesi lanetan.

Iñakik euskalgintzan egindako lana lagun horietako gutxiak ezagutzen du. Sorpresa hartu du askok, Berriako eskola ikusi duenean, Jakin taldeak egina, zera esanez: Iñaki Bereziartua Jakin aldizkari sortzailea.

1956 urriti hartan sortu zen Jakin Arantzazun. Hiru lagun ematen dira sortzailetzat: Iñaki Bereziartua, Iñaki Bastarricka eta Fernando Mendizabal, hiru estudiante gazte Arantzazuko Teologaduan.

2006an, aldizkariaren urre ezteiak zirela eta, omenaldi bat egin zitzaion sortzaileei. Han zen Iñaki, pozik eta sasoiko. Esker oneko opari bana eman genien, ongi merezia.

Daukan meritua eman behar zaie Iñaki eta bere lagunei, frankismo giro hartan aldizkari bat

euskeraz sortzea ez bait zen txantxetakoia. Baimenik gabe sortu zuten Jakin eta horrek bere arriskuak zeuzkan fraileen artean eta agintari frankisten begietan. Baina Iñakik arriskuari ez zion bildurrik.

Iñaki Bastarrickak kontatua du nola sortu zuten. Nola berak aurrera Iñakiri kontatu zion asmoa, eta honek baietza esatean aurrera egin zuten. Iñakiren doaiak azpimarratzen ditu: langilea, abila, abertzalea, euskaltzalea, laguna, lagun leiala.

Hirukotean bakoitzak zuten bere egitekoa. Iñakiren kargu zuden harpidetzak, kobraketak eta inprimaketa.

Iñakik idatzi ere egin zuen Jakinen, eta geroztik Goiz Argi eta Anaitasunan, oker ez banago. Bere doxerdi lankidetzatik



2006an Arantzazun eginiko omenaldian, Bereziartua Fernando Mendizabalekin eta Manolo Urbietarekin. HITZA

gora agertzen dira Jakineko lehen zenbakietan. Bi bitxikeria seinatu nahi nituzke hemen: olerki bat, elurrari buruzkoa eta Euskaltzaindiak gerraostean egin

zuen bileraren kronika. Iñakik ongi merezia du guztion memoriari eta bihotzean irautea.

Eskerrik asko eta ez adiorik, Iñaki.

A Asteko irudia



Hiru Errege Magoen oparia, elurra

TOLOSALDEA-LEITZALDEA • Aste honetan heldu ziren eskualdera Hiru Errege Magoak. Astelehenean iluntzean egin zuten euren sarrera eta astearterako aurretik zuten bidaia luzeari ekin zioten. Txikieneztat opariz beteta etorri ziren eta euren maletan elurra ere enkargatuta ekarri zuten eskualdeko herri guztietara. Hurrengo egunean heldu zen eta bizpahiru egunez zuri-zuri esnatu eta oheratu da eskualdea. Honi esker, paisaia zoragarriaz gozatzeko aukera izan dugu, kale eta mendiak ikusgarriak egon baitira egun hauetan. Hainbat arazo ere izan dira gure errepideetan, botatako elurrarengatik eta izotzarengatik. I. TERRADILLOS/N. LATABURU

Irauteaz



» Uzturretik

Iratxe Etxebeste

Anjel Lertxundiri irakurri diot aste honetako zutaberen batean ez dela erraza zehazten gurea bezalako herri batek non hartzen

duen irauteko indarra. Biktimistatza gaizkatala, biktimismo mozkin zale baten ondorioa dela, nonbait, egiten dugun protesta bakoitzatza. Eta bada goela, oraindik, biktimismoa baino haragoko sentimendu bat herri honen historia zipriritzintzen duena: umilazioarena.

Nik ez dakit gurea bezalako herri batek nonbait hartzen ote duen irauteko indar hori. Leku edo momentu konkretu batean jabetzen ote garen irauteko dugun beharraz. Herri gisa irauteko, herritar gisa irauteko. Edo irautea den biziaren pertsonal jakin batzuen ondo-

rio, edo bestela esanda, norberaren barruan pixkanaka hazten, elikatzen joaten den sentimendua.

Arrazoi du Lertxundik. Sentimendu hori oso dago lotuta umilazioarekin. Umilatzeko gaituzte baina, umilatzeko gaituzte herri moduan. Etengabe umilatzeko gaituzte, eta guri, orduan, ez zaigu besterik geratzen: irautea.

Baina noiz arte irau behar dugu? Zergatik irau behar dugu? Zer da irautea? Eta, batez ere, nola irauten da?

Milaka eta milaka lagun bildu gi-

nen aurreko larunbatean Bilboko kaleetan. Sineskera, sentsibilizazio eta jarrera oso ezberdineko jendea pankartaren atzean. Herri bat, herri gisa irauteko gogo duen herri bat, eta modu batera edo bestera, denok lagun.

Gero, gau horretan, Espainia aldera abiatu ginen. Irauteaz aritu ginen Enekorekin. Irauteaz aritu ginen Estanisekin. Ze garrantzitsua den, irauteko, herri gisa irauteko gogo duen herri bat.

Garbi dago. Alferrik ari dira. Biktimismoan sinesten duenak baino ezin diezaiok besteari biktimismoa egotzi. Eta guk, nik dakidala, beste norabide bat daramagu: irautearena. Eta irauten dugun bitartean, izatearena.

B Blogteka info

Esker mila Samaniego-Orixe kirol batzordetik

Samaniego-Orixe Kirol Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie 2008ko XI. Elkartasun Krosa hain arrakastatsua izatea ahalbiderratu duten guztiei, baita Bibliomula proiektua diruz lagundu duten Alde Zaharreko dendariei ere.

Hurrengo edizioan berriro ere elkarlanean arituko garela koan ESKERANITZ.

Samaniego ikastetxea
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/samaniego>

G Gutunak

EREen aurka

Azken 16 urteetan enpresariak eta bankuek eskandaluzko etekinak izan dituzte, aldi, langileentzat prekaritate handitu egin da, erosteko ahalmena galdu egin dugu, kaleratzea merketu egin dute, lantokietan presioa areagotu egin da eta borroka handiekin lortu gutien eskubideak kendu egin dizkigute. Esperientziak argi erakutsi digu enpresariak eta bankuek poltsikoratzen dutena langileek ez dutela hartzen.

Orain, ekonomia kapitalista inoiz bizi izan ez dugun krisi sakon batean sartzen ari da. Munduko gobernu guztiak (Obamak, Zapaterok, Sarkozyk, Ibarretxek...) bankuei eta enpresariari ematen ari zaizkien diru laguntza izugarriak ez dutela krisia kopontzeko balio ikusten dugu. Hori bai, administrazioen zorra ikaragarri handitzen ari dira "beste irteerarik ez dagoela" esaten ditugun bitartean. Gezurkiak! Diru publiko guzti hau lanpostuak mantentzeko erabili beharko litzateke eta ez bankuei laguntzeko.

Confebask, euskal enpresarien elkarteak eta CEOek, Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Madrilgo Gobernuari EREak onartzeko, langile finkoak aldirakoengatik ordezkatzeko kontratuak gehiago malgutzeko eta enpresei diru gehiago eman diezaieten exigitzen jarraitzen dute. Langileok ordea, ez daukagu munduko eta lantokietako krisiaren ardurarik. Beraz, krisiaren ondorio kaltegarriak langileak ordaintzeko arrazoik bakar bat ere ez dago. Langileok eta gure familiek bizi ahal izateko lan egin besterik ez daukagu eta ez dugu lantoki bat itxia edo langilerik kaleratzea onartu behar.

Orain, enpresariak EREekin etekinen tasa mantendu nahi dute. Langileen aurkako ERE kopurua handitzen ari da Euskal Herrian eta honek klaseko borrokaren

handitzea ekarriko du nahitaez. Azken asteetan ikusi dugu langileen mobilizazioak eta partehartzea handitu egin direla EREen aurkako borroketan. Baina garrantzitsua da ikustea ERE hauek ezin direla lantokiz lantoki soilik borroka eginez gelditu. Horregatik, kapitalisten aurkako erantzun onena EREak dituzten lantokietako langileen borroka elkartzea da, lanpostuen eta lan baldintza duinen alde langile klase osoaren batasuna bultzatuz.

Sindikatuetakozuzendaritzek 24 orduko greba orokorra deitu beharko lukete berehala patronalaren ofentsibaren aurka. Greba orokorrak, azken finean, gizarte kapitalista geratuazatze boterea langile klasearen eskuetan dagoela frogatzen du, eta langileen baimenik gabe lantegiek, garraioideek, hezkuntzak eta ospitaleek ez lukezela funtzionatu erakusten du. Hor aurkitzen da langile klasearen indarra, gogoratu langileek gaur egun duten kopurua eta indarra historian inoiz izan dutena baino handiagoa dela. Greba orokorra da kapitalisten eta patronalaren erasoaren aurkako pausorik garrantzitsua. EREen aurka eta lanpostu guztien defentsan GREBA OROKORRA!

Manu Odriozola. Euskal Herria Sozialista aldirkariko kidea.

Mahai inguruaren gaineko irakurketa

Idazki honen bidez, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak berriro ere euskal aldirdiek eta kasu honetan eskualdeko haien ordezkaritzek AHTri buruzko eztabaida bultzatzeko oztupoak jarri dituztela salatu nahi du. Azken kasu nabarmena hilabete honetan izan dugu, luzarotik Tolosa Herria Hedabideak AHTren inguruan antolatzen ari zen eztabaidan ez parte hartzea erabaki dutelako. Eztabaida neutrala eta anitza prestatzen ari zen. Berriro ere, politikariek eta

agintariek proiektu honen aurka egiten dugunoi arrazoiz sendoak dauzkagula erakutsi digute eta haiek argudio sendorik ez daukatela, aginduak eta diruaberterik ez.

Urtero bezala Tolosaldeko euskarazko Galtzaundi aldirkaria eztabaida anitza antolatzeko a zen, aurtan Tolosa Herria Hedabideak sareko beste komunikabideekin batera: Galtzaundi bera, Tolosaldeko Hitza eta 28 kanala. Eztabaida hauek oso jarraipen handia izan dute eta anitza eta ordezkaritza ugariok sartuta dira beti. Aurtan, eskualdean eta orokorki euskarazko gaitzak ugari sartuta dute. AHT.

Horrela, AHT Gelditu! Elkarlanea ere gonbidatu zuten. Hasieratik, zenbait talde politikokuko egindute parte hartzeari, PPK esaterako. Gero beste batzuek, PSOEek eta normalean nahiko jarrera ez-zehatza daukatenean, EBk eta EAK. Pixkanaka, anitza izan behar zen eztabaidarako EAJ-PNV eta AHT Gelditu! Elkarlanea besterik ez zirengeneratu (interesgarria, kontrako erakundea eta aldeko aldirdia bat zela, baina beste aldirdiak ez zuden deituta). Azkenean antolatzaileen, PNVren eta Elkarlaneko kideen arteko bilerak izan ziren. Hala ere, Uriaren hilketaren ondoren PNVk beste jarrera hartu zuen eta azalpen gehiagorik eman gabe ez parte hartzea erabaki zuen.

Horregatik, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak gure harridura adierazi behar dugu. Lehenengo eta behin, betidanik eztabaida falta salatu dugu. Hasiera batetik saiatu gara jendeari informazio eskaintzen, gure ustez Jaularitzak eman izan ez duelako. Informazio eskaini dutenean, antolatu zuten erakusketan esaterako, datu asko isiltzen dira, besteak beste, kostuak, kalteak eta herritarren oposizioa. Eskeini denean, antolatu zen erakusketan bezala, guk informazioa eta mobilizazio ugari ondoren izan zen. Hala ere, beti datu asko, datu negatiboak isiltzen

dira: besteak beste kostuak, kalteak eta biztanleen oposizioa.

Zalantzarik gabe, eztabaida bat ikuspegi desberdinak islatzeko era egokiena izango zen. Jarrera politikoko desberdinak ordezkatuak izan diren beste kasuetan, plurala eta neutrala izan da. Beti egitasmo honen onurak eta beharrak aipatzen dituzte, baina gure kezak erantzunik gabe geratzen dira, eta ez dute herriaren jarrera kontuan hartzen. Haiek dira zenbakiak eta informazio daukatena, baina ez dituzte erakusten, edo kasu honetan ondorioztatzen dugun bezala, ezkutatu egin nahi dituzte. Kasu honetan, BERRIRO ondorioztatzen dugu proiektua inposatu nahi dutela.

Horretarako oposaketa isiltzen dute, eta deusestzen saiatzen dira, bai politikoa eta baita komunikabideak ere. Horretarako, kriminalizazioa bultzatzen dute, eta hori ez da ET Aren ekintzatik hona garatu den zerbait, baizik eta hasieratik instituzioek izan duten estrategia. Horregatik, berriro ere, proposatutako eztabaida honetan parte ez hartzea oposaketa deusestetu nahi izatea dela uste dugu.

Gure gizartean, mugatu egiten digute parte hartzeko aukera, AHTren kasuan bereziki, eta eztabaida honen inguruan hartutako erabakia horren adibidea da. Lehendakariak oso larritzak hartu du bere kontsulta egiteko aukera garalarazi izana, baina berak behin eta berriz egin izan dio uko hainbat eta hainbat herritarrek AHTren inguruko iritzia agertzeko kontsultak egiteari. Zenbait herritarren herri kontsultak izan dira, baina Eusko Jaularitzak ez ditu haien emaitzak onartu, ezta udalek hartutako erabakiak edota lur jabeek hartutakoak.

Egitasmo hau beste behin inposatu nahi digute eta hori onartezina iruditzen zaigu.

David Miangolarra. Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanea.

41.025 euro

Mila esker. Eskerririk asko, laguntzea beste asmorik gabe gurekin bat egin duzuen guztioi, Miguel Angel sendatzeko eman diguzuen babesagatik. 41.025 euro. Horixe da elkartasunaren bitartez bildutako diru kopurua. Zuen ahaleginarik esker, Miguel Angel beste bost hilabetez mantendu ahal izango dugu Aita Menni ospitalean, garuneko infartoak eragin dion gaixotasunari aurre egin diezaion.

Hau guztia ez litzateke posible izango lagunek, erakundeek, enpresek, dende, ostalariek, kirolariek, musikariek eta beste ekimen honen atzetan bildu diren hainbat eta hainbat hiritar anonimok emandako laguntzarik gabe. Era berean, bereziki aipatu nahiko gure lagun Joaquin Arratibel, Divinus Catering taldeko zuzendaria eta baita bere taldea ere. Bere lagun Miguel Angelen aldeko egitasmo hau bultzatzen egindako lan nekaezinaz gain, joan den abenduaren 14an Zerkausion emandako 800! bazkari! ingurutik bat bere ere ez baitzuen kobratu.

Egun hartan bezalaxe, ia ezinezkoa egiten zaigu hitzen bitartez adieraztea jasotako babesagatik familia osoak une hauetan sentitzen duen emozioa eta esker ona. Jakin badakigu, bakoitzak ahal izan duen neurrian, zuek ere ahalgina egin duzuela hondar altxo bana jartzeko, eta bizi osoan oroituko dugun eskuzabaltasun lezioa eman diguzue denon artean.

Idatzi honekin, sendia osoak 2009 zoriotsua izan dezazuela opa dizuegu bihotz bihotzetik. Gu-retzat horren gogorra izan den urtean, irribarre eginarazi diguzue, laguntza gehien behar genuenean ondoan izan zaituztegu eta erakutsi diguzue bizitzak momentu txarrak ekarri eta, aukera eta bertute bilakatzen direla.

Eman diguzuen guztia jaso dezazuela zuek. Eskerririk asko guztioi. **Azkarate familia.** Tolosa

H Hilberriak

ANBROSIO IBARZABAL ALIJOSTES
'Ruso'

Arraunean atzera begiratu egiten dugu aurrera. Bizitzan ere zuek emandakoari begira, aurrera jarraituko dugu. Mila esker Ruso.

Ibarrako arraunlariak

TOLOSA
2009ko urtarrilaren 11

'RUSO'

Hik pizten lagundu deken sua ez duk gozatu. Baina bere maitasuna hik in zeok, hire goxotasuna gukin zeoken bezala.

Eneko Aritzaren Lagunak Kultur Elkarteak

TOLOSA
2009ko urtarrilaren 11

AMBRO IBARZABAL ALIKOSTES

JAUNA (RUSO).
-Goian bego-

Nahiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu gure bihotzean. Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko bainan bizitzen geran artean ez zaitugu ahaztuko.

TOLOSA-IBARRA
2009ko urtarrilaren 11

Zure ilobak: Xabin, Saloa, Gaizka, Oihan, Beñat

FUNERARIA VASCO NGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)

Gazte Astea amaitu ondoren balantzea egin du Gazte Sailak

Tolosa » Hiru egunetan ospatu zituzten ekitaldietan koadrila ugariak parte hartu zutela aipatu dute antolatzaileak.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalaren Gazteria Sailak Gazte Astea antolatu zuen abenduaren amaieran eta urtarrilaren hasieran Tolosako Gazte Topagunean. Antolatzaileek «ekin-tza bereziak» egin dituztela aipatu dute, «abenduko oporraldiak aprobeztatzuz, urtero bezala, bi aste ezberdinetan gauzatu direlarik». Hona hemen Gazte Astearen barnean burututako hainbat ekimen.

Abenduaren 26ean

Iragan urteko azken hilabetearen 26ean eskulanak egin zituzten Gazte Topagunera hurbildu ziren gazteak. «Abenduaren 26ean, marko tailerra egin genuen, birziklitzeko materiala eta koloretako spray-ak erabiliz. Neskek zein mutilak animatu ziren tailer honetara

eta oso marko originalak atera ziren», aipatu dute arduradunek balantzea egiterako unean.

Abenduaren 27an

Gazte Astearen bigarren egunean futbolin eta mahai tenis txapelketak jokatu zituzten: «Abenduaren 27an, Topaguneko baliabi ideak erabiliz futbolin eta mahai tenis txapelketak egin genituen. Koadrila askok hartu zuten parte, adin ezberdineko neskek zein mutilak eta oso giro polita egon zen lokalean. Hau amaitu ondoren, sari banaketa ekitaldia egin genuen».

Urtarrilaren 3an

Azken eguna aurten ospatu zuten merendola eta guzti: «Azkenik, urtarrilaren 3an mahai jolasen maratoia eta merendola ospatu genituen. Koadrilek jolas ezberdinetan hartu zuten parte, besteak beste *Twister*, *Tabu*, *Pictionary*, mimi-ka... Jolasak arrakastatsuak izan ziren eta honen ondoren, parte-hartzaileekin batera merendola txiki bat egin genuen, Topagunean burutu den Gazte Aste honi bukaera emateko».



Tolosako Gazte Topagunean hainbat gazte mahai tenisean eta merendolaz gozatzeko, Gazte Astea. HITZA

Eskualdeko gazte asanbladek AHTren aurkako borrokarekin bat egin dute

Gizartea » Atzo hainbat ekimen gauzatu zituzten Tolosan, eta datorren asterako beste mobilizazio batzuetara deitu dute.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko gazte asanbladek AHT Gelditu! Elkarkana plataformarekin bat eginaz, proiektuaren aurkako hainbat ekimen gauzatu zituzten atzo, eta aurrerago egingo dituzten berri eman zuten. Hala, Tolosan zehar, hainbat eskuorri banatu zituzten eta salaketa pankartekin kalean jarri ziren.



Atzo, eskuorriak banatu zituzten, eta salaketa pankartak erakutsi. E. EZEIZA

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Katua.** Belduntzan katua desagerdu da azken egun hauetan. Belduta da eta lepazpi txuria dauka. Deitu: 650 86 56 26ra.

ALOKAIRUAN

■ **Baseria.** Borda edo baserri bat hartuko genduke alokairuan. Interesatuak deitu ondorengo telefonoz zabaldu: 634 45 9110.

@ Zurea da Hitza. Sartu gure web orrian, *Zurea da Hitza* atalean, eta idatzi nahi duzun albisteak. Bi eskualdeetako herriretan batean goraiatzeko zerbait baldin baduzu edo salatzen zerbait, sartu atal honetan eta idatzi bertan. Erabiltzaileek idatzia irakurtzeko aukera ere edukiko duzu: www.tolosaldekohitza.info

» MOBILIZAZIOAK

Urtarrilak 15, osteguna

■ **Elkarretaratzeak.** AHT bultzatzen duten alderdi politikoaren egoitzetan eskualdeko elkarretaratzeak.

Urtarrilak 16, ostirala

■ **Goiza.** AHTaren aurkako Borroka Egunean parte hartzeko deia luzatu dute. Goizean ikastetxeetan geldialdiak egingo dituzte.

■ **12:00.** Gazte manifestazioa egingo da. Hau Ordiziako plazatik abiatuko da eta AHTaren obretara joan, azkenik, Beasainen bukatu.

■ **Iluntzean.** Mobilizazioak herrietan.

Urtarrilak 17, larunbata

■ **12:00.** Euskal Y-aren obretara manifestazio nazionala, Urbinako Plazatik abiatuta. Autobuserako zerrendak ohiko tokietan.

■ **Arratsaldean.** Gasteizen AHTaren aurkako jaialdi erraldoia: bazkaria, txosnak, musika, kontzertuak...

Gazte asanbladetak kideen hitzetan, «ekologiaren eta gizartearen aurkako proiektu hori gelditzeko borrokan jauzi berri bat eman beharra dago, eta ofentsibara igarotzeko ordua da orain». «Dirutza publikoa xahutu, inpartu ekologiko handiak eragin eta gizarte desegituraketa areagotu baino egingo ez duen garraio sistemaren elitista eta inposatua baita Abiadura Handiko Trenea», gaineratzen dute. AHT Gelditu! Elkarkan eta aldi berean, eskualdeko gazte asanbladek, AHT gelditzearen alde eta eraldaketa sozial sakon baten alde egiten dute apustua.

Behin eta berriz errepikatzen dutenez, «ezinbestekoa da Abiadura Handiko Trenea geldiaraztea, ingurugiroari eta gizarte osoari hainbeste kalte eragingo liokeen proiektu polemiko horren inguruan herritarrek eztabaidatu eta erabakitzeko aukera izan dezagun».

Atzo gauzatutako ekimenez gain datorren astean beste hainbat

ekintza ere gauzatuko dituzte, salaketekin jarraitzeko. Tolosaldeko gazte asanbladetak kideek deitzen diete herritarrei, hauetan parte hartzeko.

Bi eskualdeetako pilotariak bostetik lau partida galdu dituzte asteburuan

Pilota » Iñaki Gaztelu leitzarrak Erremonteko Binakako Txapelketaren finala galdu zuen bi tantorengatik.

ASIERIMAZ

Asteburu honetan pilota izan da protagonista. Erremonteko nahiz eskuz partida ugari jokatu dituzte bi eskualdeetako pilotarien artean.

Denen gaitetik ordea, Iñaki Gaztelu azpimarratu behar da. Erremontean, Binakako Txapelketaren finala jokatu zuen atzo Ezkurrarekin bikotea osatuz Hernaniko Galarretan. Lehen Mailan estreinako finala zuen leitzarrak eta bigarren postua lortu zuen.

Ezin txapela etxera ekarri

Lehen final handia jokatu zuen Iñaki Gazteluk atzokoan. Bikotekidea: erremonteko izan distiratsuen. Hala eta guztiz ere, Ezkurra eta Gaztelu 38an gelditu ziren.

Txapela Urriza eta San Migel handi batek lortu zuten. Finala oso estua izan zen, emozio handikoa. Partida osoan parean ibili ondoren, gorriak, Ezkurra eta Gaztelu, 37-32 jarri ziren aurretik. Ondoren urdinek partida irauli egin zuten,



Ezkurrarekin batera Gazteluk txapela bi puntutara eduki zuen, baina Urriza-San Migel nagusitu ziren amaieran. HITZA

40-38 emaitza lortuz. Finaleko pilotaririk onena Koteto Ezkurra izan zen.

Iñaki Gazteluk ez zuen final handi bat jokatu, baina Binakako Txapelketa nagusian azpitxapel-dun gelditzea ez da makala.

Barriola vs. Bengoetxea VI.a

Bi leitzarrek elkarren aurka jokatu zuten atzo Iruñeko Labrit pilotalekuan. Lehen Mailako Binakako Txapelketaren barnean, huts-egite ugari jokatu irten zen. Orain

gorri, orain urdin, baina jokoak zioten: lehen 16 tantotan 10 huts-egite ikusi ziren, Belokik adibidez 8 pilota galdu zituen. Hori bai, oso tanto gogorrek jokatu zituzten.

Horrelakoetan gehien asmatzen duenak baino gutxiengaltzen duenak irabazten duenez, Gonzalez-Barriola iritsi ziren 22ra. Bengoetxea VI.a eta Beloki 16ean geratu ziren.

Bi bikoteak Labriterara garaipen bat lortuta heldu ziren. Txapelketa bigarren jardunaldia jokatu

ostean, Gonzalez-Barriolak partidarik galdu gabe jarraitzen dute.

Bigarren Mailako eskuzkoa

Eskuz Bigarren Mailan, lehen jardunaldia jokatu zuten Bellosok eta Olaetxeak herenegun. Tolosarrak etalitzarrek galdu egin zituzten euren partidak: Bellosok-Eskudero 13an gelditu ziren Aritz Lasar Arutturen aurrean. Olaetxea-Arrotek Errioxan jokatu zuten, Del Rey-Galarza VI.aren aurka eta 22-18 galdu zuten.

Elurrak ere bere ondorioak utzi ditu urteko bigarren azoka egunean

Azoka » Atzo ikusi ahal izan zen lehendabiziko gazta berria; gainera aurtengo ardi gaztak oso puntu ona du.

PABLO ALBERDI

Egun hauetako elurteek eragin handia izan dute gure asteroko azokan. Ekoizle askorentzako oso zaila suertatu da beraien barazkiak jasotzea, elurra dela eta. Hala ere, izan ziren mahaietan porruak, azenarioak, kalabazak, eskarolak, letxuak edota mota guztietako babarrunak.

Hauekin, eta berritasun bezala, aurtengo lehenengo gazta berria ikusi ahal izan genuen. Bertako artzainek egingakoa. Gainera, alpatzekoa da oso puntu ona duela aurtengo ardi gaztak, eta zalan-tzarik gabe, hemendik aurrera asko gozatuko dugun produktua izango da.

Barazkien alora itzuliz, elurra urtu arte itxaron beharko dugu, eragin baikorrik ikusi ahal izateko. Urak asko lagunduko die landareei, eta hotzak ere harren eta bestelako gaitzen borrokan asko lagunduko du.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Merk.	Gares.
Erroneroa	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Lobelia	4,50	-
Krisantermoa	12,00	20,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Urria	2,00	3,00
Baba	3,00	4,00
Intxaurra	2,50	4,00
Tomatea	2,00	4,00
Kalabaza	1,50	3,00
Baina	4,00	6,00
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Arraultzak	1,10	2,40
Irasagarra	3,00	6,00
Gazta berria	17,00	-
Ardi gazta	14,00	18,00
Artisau ogia	2,80	3,70

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Txitxirioak	2,40	-
Azukrea	3,35	-

Adingabe etorkinen errealitatea, argazkitan ikusteko aukera

Tolosa » SOS Arrazakeria elkarteak antolatuta du erakusketa, eta hilaren 18ra arte Kultur Etxean dago ikusgai.

ERREDAKZIOA

SOS Arrazakeria elkarteak *Geureak ere badira adingabe horiek* izeneko argazki erakusketa antolatuta du. Ekimen honen helburua da adin txikiko atzerritarren errealitatea hobeto ezagutzera ematea, bazterreotipoak eta aurreiritziak bazterrean utzita.

Bi lekutan ikusteko aukera izango da. Alde batetik, hilaren 18ra bitartean, Kultur Etxean egongo da ikusgai, 09:00etatik-22:00etara. Hilaren 20an hasi eta 28ra arte berri, Haur Liburutegian egongo da. Hara joan nahi duenak ondorengo ordutegian egin beharko du: 17:00etatik 20:00etara. Bestalde, hilaren 16an eta 23an, 19:00etan, SOS Arrazakeriaren eskutik bisita gidatuak izango dira.

Atzotik aurrera, Bonbereneak badu bere irratia ere

Tolosa » Hamaikagarren urteurreneko ekitaldiei amaiera emateko hasi zituen Bonberenea Irratiak bere emisioak, internetez.

ERREDAKZIOA

Bonberenea irratia sarean da atzotik. Etxe okupatuaren 11. urteurreneko ospakizunei amaiera emateko emisioei ekin zieten arratsaldean. Nahi duen orok, www.bonberenea.com webgunera sartuta entzun dezake.

Hamaika urte bete ditu aurretik Bonbereneak, eta urtetik urtera, gauza berriak sortuz ari dira. Garaipen lan horretan, beste pauso bat eman dute orain, irratia bat sortuz. Hau etxeko gazteek egingo dute. Bertan, musikarekin lotutako nahiz bestelako saioak izango dira.

Atzo egin zuten lehen emisioa, eta maila handiarekin ekin zioten. Izan ere, Laket eta Atila y los Hunos taldeen kontzertuak zuzenean entzuteko aukera eskaini zuten, irratian bitartez.



Atzo arratsaldean hasi zituzten emisioak Bonbereneako gazteek. E. EZEIZA

Bonberenean eskaintzen diren zuzenekoak irratiz emitituko dituzte. Honela, Tolosan egon ezin dutenek ere internet bidez kontzertuak entzun ahal izango dituzte. Bestalde, etxe okupatutik igarotzen diren musikari eta artistak irratira gonbidatuak izango dira.

NUTRIZIO AHOLKULARITZA



**AMAI A ETXETXIA
BIOLOGA**

**DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA**

**NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK**

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkartek urteko asanblada egingo du 11:00etan: urteko kontuak, aktibitateak, batzordea berritzea, galdetarako erantzunak. Ondoren, hamaiketako izango da.
■ **Tolosa.** Eski irteera Formigalera antolatuta du Oargi mendiko elkartek hilaren 17 eta 18rako. Informazioa eta izen-ematea, 943 675612, 688 698642 eta www.oargi.org.

Musika

■ **Tolosa.** Turtle Island (Japan) musika taldearen kontzertua Bonberenean 20:00etan.

Zinema

■ **Villabona.** 17:00etan *High School Musical 3* eta 19:30ean *Cenizas del cielo* Gurea aretoan. Bihar, 21:30ean *Cenizas del cielo*.
■ **Tolosa.** *Australia* filma Leidor aretoan 18:45ean eta 21:45ean. Bihar, 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1.943 673649.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.
Bihar
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9.943 675118.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Txikienen artean haziak ereiten

VILLABONA • Atzokoan Villabonako Gurea aretoan hitzordu interesgarria zuten herriko txikienek. Ez zuten ohartzun handirik izan eta ume gutxi bertaratu ziren Gar produkzioak taldearen *Hire zain* antzezlan ikustera. Haatik, bertan izan zirenek ederki gozatu zuten. Bertan protagonistak

Jon Elola oriotarra eta Iñigo Aranbarri azkoitiarra aktoreak izan ziren, guztia, Luis Zornoza Boyren zuzendaritzapean. *Hire zain* lanaren garapenean, haziak azaltzen ziren eta hauen inguruan bi gizonen istorioak gurtzatu ziren. ESTI ZEIZA

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak